



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ERMUKO UDAL KONTSEILUAREN ARAUTEGIA REGLAMENTO DEL CONSEJO MUNICIPAL DE LA ACTIVIDAD FÍSICA Y EL DEPORTE DE ERMUA

(Ermuko Udalbatzak 2017ko XXXXXXXXren XX(e)an onartua eta BAO n 2017ko XXXXXXXXren XX(e)an argitaratua)

(Aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Ermua, en fecha XX de XXXXXXXX de 2017 y publicado en el BOB de fecha XX de XXXXXXXX de 2017)

HITZAURREA

PREÁMBULO

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua: Araudiaren xedea
2. artikulua: Kontseiluaren izaera
3. artikulua: Funtzioak

2. KAPITULUA. ANTOLAKETA

4. artikulua: Organoak
5. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkura. Izaera eta osaera
6. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideen agintaldia berritzea eta amaitzea
7. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eskumenak
8. artikulua: Presidentetza
9. artikulua: Presidenteordetza
10. artikulua: Lantaldeak
11. artikulua: Idazkaria

3. KAPITULUA. BILERAK EGITEKO ETA AKORDIOAK HARTZEKO ERREGIMENA

12. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkuraren deialdia eta eraketa
13. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bileren bilakaera
14. artikulua: Kontseiluaren Osoko Bilkuran akordioak hartzeko erregimena
15. artikulua: Bileren aktak eta akordioen egiaztatgiriak
16. artikulua: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Udal Kontseilua desegitea

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea

CAPÍTULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

- Artículo 1: Objeto del Reglamento
Artículo 2: Naturaleza del Consejo
Artículo 3: Funciones

CAPÍTULO 2. ORGANIZACIÓN

- Artículo 4: Órganos
Artículo 5: El Pleno del Consejo. Naturaleza y composición
Artículo 6: Renovación y finalización del mandato de las personas miembros del Pleno del Consejo
Artículo 7: Atribuciones del Pleno del Consejo
Artículo 8: La Presidencia
Artículo 9: La Vicepresidencia
Artículo 10: Los grupos de trabajo
Artículo 11: Secretaría

CAPÍTULO 3. RÉGIMEN DE SESIONES Y DE ADOPCIÓN DE ACUERDOS

- Artículo 12: Convocatoria y constitución del Pleno del Consejo
Artículo 13: Desarrollo de las sesiones del Pleno del Consejo.
Artículo 14: Régimen de adopción de acuerdos en el Pleno del Consejo
Artículo 15: Actas de las sesiones y certificaciones de los acuerdos
Artículo 16: Disolución del Consejo Municipal de la Actividad Física y el Deporte

DISPOSICIÓN FINAL

Entrada en vigor

HITZAURREA

I.

Jarduera fisikoa eta kirola gizarte-errealitate bat dira, etengabe gora egiten ari direnak. Izan ere, kirola egitea orokortu egin da gizarterik aurreratuenetan. Gainera, garapen pertsonalaren funtsezko faktore bat dira; zuzenean lotuta dago bizimodu osasungarriekin, eta ongizate fisikoa eta emozionala indartzen laguntzen du.

Jarduera fisikoa eta kirola bizi-kalitatearen adierazle dira eta oinarritzakoak dira gure gizartean, kohesio-faktore gisa. Lankidetzaz, errespetua, elkartasuna, hobetzeko grina eta beste jarrera eta balio batzuk sustatzen dituzte; alegia, komunitatearen garapenean funtsezkoak diren elementuak.

Gizarte justuago eta berdintasunezkoago baterantz bidean toki-eremuak ardatz izan behar du emakumeak jarduera fisikora eta kirolera egiaz eta eraginkortasunez integratzea sustatu eta bermatzeko, benetako aukera berdintasunezko baldintzetan.

Bide horretatik jarduera fisikoa eta kirola osagaigakoak dira berez komunitatean txertatzeko, ezgaitasuna duten pertsonen benetako partaidetza ahalbidetuz.

Kirolaren Europako Gutunak, 1992an egindakoak, honela definitzen du kirola 2. artikuluan: "jarduera fisiko mota oro, antolatutako edo beste mota bateko partaidetzaren bidez helburu hauek dituen: sasoi fisikoa eta psikikoa adieraztea edo hobetzea, gizarte-harremanak garatzea edo maila guztietako lehiaketetan emaitzak lortzea".

Gorputz-hezkuntza, jarduera fisiko eta kirolaren Nazioarteko Gutun Berrikusiak, 2015eko azaroko UNESCOren Konferentzia Nagusiaren 38.ak emanikoa, gorputz-hezkuntzara, jarduera fisikora eta kirolera irispidea izateko pertsona orok duen oinarritzko eskubidea aldarrikatzen du.

II.

1978ko Espainiako Konstituzioak, 43.3. artikuluan, botere publikoen esku jartzen du hezkuntza fisiko eta kirola sustatzea, eta aisialdiaz behar bezala baliatzen laguntzea. Bestalde, 137. eta 140. artikuluetan, udalerriek euren interesak kudeatzeko autonomia dutela ezartzen da.

Konstituzioaz gain, 1985eko urriaren 15eko Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak ere onartzen du autonomia hori (Europako estatuak izenpetu dute gutun hori; hain zuzen, Espainiak 1988an sinatu zuen). 2. artikuluan dioenez, "tokiko autonomiaren printzipioa barne-araudian aitortu behar da, bai eta, ahal izanez gero, Konstituzioan ere".

PREÁMBULO

I.

La actividad física y el deporte constituyen una realidad social en constante aumento, cuya práctica ha acabado por universalizarse en el seno de las sociedades más avanzadas. Son, además, un factor esencial en el desarrollo personal, que se asocia directamente a estilos de vida saludables y que contribuye al refuerzo del bienestar físico y emocional.

La práctica físico-deportiva es un indicador de calidad de vida y desempeña un papel básico en nuestra sociedad como factor de cohesión social que promueve actitudes y valores como la cooperación, el respeto, la solidaridad y el afán de superación, que son elementos fundamentales en el desarrollo comunitario.

En el camino hacia una sociedad más justa e igualitaria el ámbito local debe actuar de eje que impulse y garantice la integración real y efectiva de las mujeres al ejercicio físico y al deporte en condiciones de verdadera igualdad de oportunidades.

En este mismo camino, la práctica físico-deportiva constituye de por sí un elemento clave de inclusión comunitaria que favorece la plena participación de las personas con discapacidad.

La Carta Europea del Deporte, redactada en 1992, define el deporte en su artículo 2 como "todo tipo de actividad física que, mediante una participación, organizada o de otro tipo tenga por finalidad la expresión o la mejora de la condición física y psíquica, el desarrollo de las relaciones sociales, o el logro de resultados en competiciones de todos los niveles".

La Carta internacional revisada de la educación física, la actividad física y el deporte, adoptada por la 38ª Conferencia General de la UNESCO de noviembre 2015, proclama el derecho fundamental de todo ser humano a acceder a la educación física, la actividad física y el deporte sin discriminación alguna.

II.

La Constitución Española de 1978, en su art. 43.3, encomienda a los poderes públicos fomentar la educación física y el deporte y facilitar la adecuada utilización del ocio. Por otra parte, en los artículos 137 y 140 se reconoce la autonomía del municipio para la gestión de sus propios intereses.

Al reconocimiento constitucional se suma el de la Carta Europea de Autonomía Local de 15 de octubre de 1985, suscrita por los Estados europeos, entre ellos por España en 1988. En su artículo 2 se previene que "el principio de autonomía local debe ser reconocido en la legislación interna y, en lo posible, en la Constitución".



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikularen arabera, udalerriek kultura eta kiroleko jardueren zein instalazioen inguruko eskumenak dituzte, eta auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzakete.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki erakundearen antolaketa, jardura eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoak, udalbatzen autoantolaketa-ahalmena ezartzen du; izan ere, arloko kontseiluak ezarri zituen, herritarrek eta elkarteek udal-gaietan parte har dezaten bideratzeko. Arloko kontseilu horiek iritzia emateko eta, dagokionean, proposamenak egiteko funtzioak dituzte, betiere, bakoitzari dagokion jardura-sektoreko udal-ekimenen inguruan.

Beraz, parte-hartzeak esanahi nabarmena du tokiko esparruan. Hartara, herritarrek garrantzi handiagoa ematen diote parte-hartzeari, eta gobernu-estilo parte-hartzaileagoak eskatzen dituzte, gobernu-jarduerak berekin dituen arazoak konpontzeko.

Ildo horretan sortzen da Jardura Fisikoaren eta Kirolaren Udal Kontseiluaren Funtzionamendu Arautegi hau, erabakiak errazago hartzeko, adostasuna ahalbidetzeko eta gatazkak saihesteko tresna gisa, udal-kudeaketaren eraginkortasuna handituz, eta, horri esker, herritarren gizarte-ongizatea eta bizitza-kalitatea hobetuz.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Araudiaren xedea

Arautegi honen helburua Jardura Fisikoaren eta Kirolaren Ermuko Udal Kontseilua (aurrerantzean, Kontseilua) izeneko arloko kontseiluaren funtzioak, antolaketa eta funtzionamendua arautzea da.

2. artikulua. Kontseiluaren izaera

1. Kontseilua arloko organo bat da, parte hartzekoa eta kontsultarakoa. 7/1985 Legearen (Toki

La Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local 7/1985, en su artículo 25, atribuye a los municipios competencias en materia de actividades o instalaciones culturales o deportivas, así como de cuantas actividades y servicios públicos contribuyan a satisfacer las necesidades y aspiraciones de la comunidad vecinal.

En el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales se establece la potestad de autoorganización de la Corporación, al acordar el establecimiento de Consejos Sectoriales cuya finalidad es la de canalizar la participación de la ciudadanía y de sus asociaciones en los asuntos municipales con funciones exclusivamente de informe y en su caso propuesta, en relación con las iniciativas municipales relativas al sector de actividad correspondiente.

La participación alcanza así un significado destacado en el ámbito local, donde la ciudadanía asocia con mayor énfasis el valor de aquélla y exige estilos de gobierno más participativos para resolver los problemas que plantea el ejercicio del gobierno.

En esta línea nace este Reglamento de Funcionamiento del Consejo Municipal de la Actividad Física y el Deporte, como instrumento para facilitar la toma de decisiones, favorecer el consenso y evitar conflictos, potenciando la eficiencia en la gestión municipal e incrementando así el bienestar social y la calidad de vida de la ciudadanía.

CAPÍTULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto del Reglamento

El objeto de este reglamento es regular las funciones, la organización y el funcionamiento del consejo sectorial llamado Consejo Municipal de la Actividad Física y el Deporte del Ayuntamiento de Ermua (en adelante Consejo).

Artículo 2. Naturaleza del Consejo

1. El Consejo es un órgano sectorial de participación, de carácter consultivo, creado al

Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 2koa) 20.3. artikuluan, 2/2016 Legean (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, apirilaren 7koa) eta 2568/1986 Errege Dekretuaren (Toki erakundeen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiari buruzkoa, azaroaren 28koa) 130. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz sortu da.

2. Ermuko kirol-sistemako eragile guztiei elkartzeko aukera ematen die Kontseiluak, hitz egin eta parte har dezaten. Gainera, hirian kirola eta jarduera fisikoa indar handiagoz sustatzeko beste tresna bat ere izango da.

3. Orobat, aholkularitza-, kontsulta-, informazio-, jarraipen- eta eztabaida-organo bat ere bada Kontseilua, udalerriko kirol-jardueraren eta jarduera fisikoaren arloko gaietan.

3. artikulua. Funtzioak

1. Kontseiluak funtzio hauek izango ditu zehatz-mehatz:

a) Udal-gobernuari jarduera fisikoari eta kirolari buruzko aholkuak ematea.

b) Hiribilduan jarduera fisikoari eta kirolari buruzko eztabaida eta ezagutza sortzea, eta gai horien gainean adostasunak eragitea.

c) Jarduera fisikoari eta kirolari buruzko proposamenak eta gomendioak egitea.

d) Hiribilduko kirol-arloko plan, egitarau eta jarduerak diseinatzeko, ebaluatzen eta haien jarraipena egiten parte hartzea.

e) Udalerrian kirol-jarduera eta jarduera fisikoa sustatzeko politikan parte hartzea, oinarrizko eskola-kirolaren modalitate eta mota guztietan arreta berezia jarritz.

f) Erakunde, organismo eta partikularrek Hiribilduko jarduera fisikoan parte har dezaten sustatzea, herriko kirol-ekipamenduak ahalik eta ondoen erabiltzeko formula egokiak proposatuz.

g) Beste udal-organo parte-hartzaileetako arloko sektoreei laguntzea, jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako gaiak jorratzen dituztenean.

h) Araudi honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, lantaldeak sortzea.

i) Informazio-saioak egitea kolektibo jakin batzuentzat, eta lantzen diren gaien buruz zer iritziz duten jasotzea.

j) Hiribilduan kirola eta jarduera fisikoa sustatzean,

amparo de lo previsto en el artículo 20.3 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y en la Ley 2/16, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi y en el artículo 130 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

2. El Consejo es un espacio de confluencia, diálogo y participación de diversos agentes que actúan dentro del sistema deportivo de la Villa de Ermua, así como un instrumento más para potenciar la promoción del deporte y la actividad física en la ciudad, basado en el principio de igualdad.

3. El Consejo es, también, un órgano de asesoramiento, consulta, información, seguimiento y debate en asuntos que afecten al ámbito de la práctica deportiva y de la actividad física local.

Artículo 3. Funciones

1. El Consejo desarrolla con carácter de manera específica las siguientes funciones:

a) Asesorar al gobierno municipal en materia de actividad física y deporte.

b) Crear debate y generar conocimiento sobre la actividad física y el deporte en la Villa y suscitar consensos sobre estos temas.

c) Desarrollar propuestas y formular recomendaciones en materia de actividad física y deporte.

d) Participar en el diseño, evaluación y seguimiento de los planes, programas y actuaciones deportivas en el ámbito de la Villa.

e) Colaborar en la política de fomento de la práctica deportiva y promoción de la actividad física en la Villa, con especial cuidado del deporte en edad escolar en todas sus modalidades y formas posibles.

f) Promover la participación de entidades, organismos y particulares en favor de la realización de la práctica de la actividad física y deportiva en la Villa, planteando las fórmulas más idóneas para la mejor utilización de los equipamientos deportivos existentes.

g) Apoyar a los Consejos Sectoriales de otros órganos de participación municipal donde traten temas relacionados con la práctica física y el deporte.

h) Crear grupos de trabajo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 10 de este reglamento.

i) Celebrar sesiones informativas dirigidas específicamente a determinados colectivos, y recoger sus opiniones sobre las cuestiones que se traten.

j) Velar por la igualdad de oportunidades en la



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



aukera-berdintasuna zaintzea.

k) Kirol-jardueraren eta kirolaren arloko erakundeen artean prozesu parte-hartzaileak bultzatzea.

l) Aurrekoekiko osagarriak diren funtzio guztiak edo Kontseiluko presidentek agintzen dizkionak egitea.

2. Kontseiluaren txostenek eta irizpenek gomendio-izaera izango dute, eta ez dira lotesleak izango udal-gobernuko organoentzat.

2. KAPITULUA. ANTOLAKETA

4. artikulua. Organoak

1. Kontseiluan, organo hauek daude:

- a) Kontseiluaren Osoko Bilkura
- b) Presidentetza
- c) Presidenteordetza

5. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkura: Izaera eta osaera

1. Kontseiluaren Osoko Bilkura Kontseiluko ordezkaritza-organoren da.

2. Alkatea da Batzar Nagusiko burua, baina funtzio horren eskumen guztiak edo batzuko presidenteordearen esku utzi ditzake.

3. Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideak honako hauek dira:

A. Presidente

B. Presidenteorde

C. Kide hauek:

a. Ermuko Udalean ordezkaritza duen talde politiko bakoitzeko zinegotzi bat, Udako Kirol Erakundearen Kontseilu Errektoreko kide dena. Presidenteak izan ezik, udal-ordezkariek hitza izango dute, baina ez botorik. Karguak agintaldiaren hasieran berrituko dira.

promoción de la práctica deportiva y el acceso a la actividad física en la Villa.

k) Impulsar procesos participativos entre las entidades del sector de la actividad deportiva y del deporte.

l) Todas las funciones que sean complementarias a las anteriores o que le sean encargadas por la Presidencia del Consejo.

2. Los informes y dictámenes del Consejo tienen carácter de recomendación y en ningún caso son vinculantes para los órganos del gobierno municipal.

CAPÍTULO 2. ORGANIZACIÓN

Artículo 4. Órganos

1. En el Consejo existen los siguientes órganos:

- a) El Pleno del Consejo
- b) La Presidencia
- c) La Vicepresidencia

Artículo 5. El Pleno del Consejo: Naturaleza y composición

1. El Pleno del Consejo es el órgano de máxima representación del Consejo.

2. Es presidido por el Alcalde o Alcaldesa, que podrá delegar esta función con todas o parte de sus atribuciones en la Vicepresidencia.

3. El Pleno del Consejo está integrado por:

A. La Presidencia

B. La Vicepresidencia

C. Los y las vocales siguientes:

a. Un concejal o concejala en representación de cada uno de los grupos políticos con representación en el Ayuntamiento de Ermua, que forme parte del Consejo Rector del Instituto Municipal de Deportes. Salvo que asuma la Presidencia, los y las representantes municipales actúan con voz y sin

b. Udal Kirol Erakundeko zuzendari gerentea, hitzarekin baina botorik gabe.

c. Udal Kirol Erakundeko kirol-teknikari koordinatzailea, hitzarekin baina botorik gabe.

d. Urritasuna duten pertsonekin kirola lantzen duten erakundeetako ordezkari bat. Sektoreko erakundeek proposatuko dute pertsona hori, eta hitza eta botoa izango ditu.

e. Kirol-klub, -elkarte eta -erakunde bakoitzeko ordezkari bat, betiere, legez eratuta badaude, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan izena emanda badaude eta egoitza Ermuan badute. Ordezkari horiek hitza eta botoa izango dituzte.

f. Ermuko ikastetxe bakoitzeko guraso-elkarteko ordezkari bat, hitzarekin eta botoarekin.

g. Ermuko ikastetxe bakoitzeko ordezkari bat, hitzarekin eta botoarekin.

h. Jubilatuen Egoitzako ordezkari bat, hitzarekin eta botoarekin.

i. Emakumeen Kontseiluko ordezkari bat, hitzarekin eta botoarekin

j. Ermuko Osasun Zentroko ordezkari bat, hitzarekin eta botoarekin.

k. Kirola arloan ospea eta merituak dituzten bi pertsona, hitzarekin eta botoarekin. Presidenteak aukeratuko ditu.

l. Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

4. Kontseiluan dauden erakundeek eta elkarteek euren ordezkariak aukeratuko dituzte. Horiez gain, ordezkariak ere aukeratu beharko dituzte, ordezkariak ez badaude, postuak bete barik badaude, gaixorik badaude edo egiaztatutako gainerako kasuetan.

6. artikulua. Kontseiluko kideen agintaldia berritzea eta amaitzea

1. Kontseiluko kideak behar bezala txandakatzen direla bermatzeko, Kontseiluaren osaera udalbatzaren agintaldi bakoitzaren hasieran berrituko da.

2. Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideen agintaldia arrazoi hauengatik amaitzen da:

a) Agintaldia amaitzen delako, edo, hori gertatu baino lehen, karguari uko egiten diotelako, ezigaitze-deklarazio baten ondorioz,

voto y renuevan su cargo al inicio de su mandato.

b. El/La directora/a Gerente del Instituto Municipal de Deportes, que actuará con voz pero sin voto.

c. El/La Técnico/a Coordinador/a de Deportes del Instituto Municipal de Deportes, que actuará con voz pero sin voto.

d. Una persona representante de las entidades que trabajen el deporte con personas con diversidad funcional, con voz y con voto, elegida a propuesta de las entidades del sector.

e. Una persona representante de cada uno de los clubes, asociaciones y entidades deportivas, siempre que estén legalmente constituidos, estén inscritos en el Registro de Entidades Deportivas de Euskadi y que tengan sede en la Villa de Ermua, con voz y con voto.

f. Una persona representante de cada una de las Asociaciones de Madres y Padres del Alumnado (AMPA) de los centros educativos de Ermua, con voz y con voto.

g. Una persona representante de cada uno de los centros escolares de Ermua, con voz y voto.

h. Una persona representante del Hogar de Personas Jubiladas, con voz y con voto.

i. Una persona representante del Consejo de las Mujeres, con voz y con voto.

j. Una persona representante del Centro de Salud de Ermua, con voz y con voto.

k. Dos personas de reconocido prestigio y mérito en materia deportiva, que serán libremente designadas por la Presidencia, con voz y con voto.

l. El secretario o secretaria del Consejo, que actuará con voz pero sin voto.

4. Las entidades, asociaciones y organizaciones presentes en el Consejo designarán las personas que las representan y pueden designar también las personas que tendrán que suplir en caso de ausencia, vacante, enfermedad u otra causa justificada.

Artículo 6. Renovación y finalización del mandato de las personas miembros del Consejo

1. A fin de asegurar una rotación adecuada de las personas miembros del Consejo, la renovación de su composición se hará al inicio de cada mandato consistorial.

2. Las personas miembros del Pleno del Consejo finalizan su mandato por:

a) Expiración del plazo para el que fueron designados/as, o, de manera anticipada, por su renuncia, por incapacitación, inhabilitación o



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



gaitasungabetze baten ondorioz edo bat-batean bateraezintasuna gertatzen delako.

b) Bi urteko bileretara ez agertzeagatik, justifikaziorik gabe; kasu horretan, presidenteak kide horiei baja ematea proposatuko du.

c) Ordezkatzen duten elkarte, taldea edo kolektiboa desagiteagatik.

d) Tokiko araubideari jarraituz aplika daitezkeen gainerako kausengatik.

3. Erakunde, klub edo elkarte bateko kide batek Kontseiluaren Osoko Bilkuran ordezkarri izateari uzten badio, beharrezkoa da erakunde, klub edo elkarte horrek Kontseiluaren Osoko Bilkurari berenberegiz jakinaraztea. Gainera, ordezko bat izendatu beharko du agintaldia amaitu arte, baldin eta lehenago ordezkarriaren ordezkorik izendatu ez badu.

7. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eskumenak

Hona hemen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eskumenak:

a) Bere aginpideko gaiak aztertzea, eta haiei buruz eztabaidatzea eta informatzea.

b) Bere aginpideko gaiei buruzko proposamenak eta txostenak egitea.

c) Hauek sortzen laguntzea eta haien jarraipena egitea:

- Udalaren partaidetza duten kirol-arloko organismo edo erakunde berriak.
- Udalaren kirol-ekipamenduen sarea.
- Hiriko kirol-politikako gaitan eragina duten arau-proiektuak.

d) Ermuan jarduera fisikoaren edo kirolaren sustapenarekin edo kudeaketarekin lotutako jarduketak eta neurriak proposatzea eta bideratzea.

incompatibilidad sobrevenida.

b) Ausencias injustificadas a las reuniones que se hayan celebrado durante el plazo de dos años; en este supuesto se propondrá, por parte de la Presidencia, que estas personas miembros sean dadas de baja.

c) Por la disolución de la asociación, grupo o colectivo al cual representan

d) Todas las demás causas que sean de aplicación conforme a la normativa de régimen local.

3. La pérdida de la condición de representante en el Pleno del Consejo por parte de un/a miembro de una entidad, club, asociación requiere la comunicación expresa al Pleno del Consejo por parte de la entidad, quien deberá designar a la persona sustituta para el resto del mandato, salvo que con anterioridad ya hubiera designado una persona suplente.

Artículo 7. Atribuciones del Pleno del Consejo

Son atribuciones del Pleno del Consejo:

a) Debatir, informar y estudiar los asuntos de su competencia.

b) Elaborar propuestas e informes sobre las materias de su competencia.

c) Realizar el seguimiento y contribuir al impulso sobre:

- La creación de nuevos organismos o entidades deportivas en los que participe el Ayuntamiento.
- La red de equipamientos deportivos municipales.
- Los proyectos normativos y reglamentarios municipales que inciden sobre temas de política deportiva en la ciudad.

d) Canalizar y proponer nuevas actuaciones o medidas relacionadas con la promoción o la gestión de la práctica de la actividad física o el deporte en la Villa de Ermua.

e) Eratutako lantaldeek egindako azterlanak baloratzea.

8. artikulua. Presidentetza

1. Kontseiluko Presidentetza alkateari dagokio, baina funtzio hori presidenteordearen esku utz dezake. Presidenteak Udalak Kontseiluan duen ordezkari gorenak.

2. Presidentearen funtzioak hauek dira:

a) Kontseilua ordezkatzeko eta zuzentzea.

b) Kontseiluan sartzen diren kide berriak onartzea, baita bajak ere.

c) Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bilera guztietako gai-zerrenda zehaztea, eta bilerak deitzea eta zuzentzea.

d) Kontseiluak behar bezala jarduteko, beharrezkotzat jotzen dituen lantaldeak sortzea.

e) Udalaren kudeaketa- eta gobernu-organismoetan onartutako proposamenen berri ematea.

f) Kide anitzeko organo baten funtzionamenduari dagokionean berezkoak dituen gainerako eskumenak, berdinketa-kasuetan kalitatezko botoa erabiltzea esaterako.

3. Presidenteak eta presidenteordeak arduratu behar dute sektoreko elkarteetan partaidetza sustatzeaz eta antolatzeaz Kontseiluaren funtzionamenduan eta eztabaidan.

4. Presidenteak ez badago, postua bete barik badago, gaixorik badago edo egiaztatutako gainerako kasuetan, presidenteordeak ordezkatu du, eta, hura ez badago, Kontseiluko kiderik zaharrenak.

9. artikulua. Presidenteordea

1. Presidenteordetzaz Kirol-zinegotzi ordezkaria arduratuko da. Gainera, presidenteak ordezkatu du, hura ez badago, postua bete barik badago edo gaixorik badago.

2. Presidenteordearen eskumenak honako hauek dira:

a) Presidenteari laguntzeko eta harekin elkarlanean jarduteko funtzioak egitea.

b) Presidenteak eskuordetzen dizkion funtzioak egitea.

c) Kontseiluko kideei laguntzea, Kontseiluari dagozkion gaietan.

3. Presidenteordearen agintaldia lau urtekoa da, baina badago pertsona bera beste agintaldi baterako aukeratzea.

e) Valorar, en primera instancia, los estudios elaborados por los grupos de trabajo constituidos.

Artículo 8. La Presidencia

1. La Presidencia del Consejo corresponde al alcalde o la alcaldesa, que puede delegar en la Vicepresidencia. La Presidencia tiene la máxima representación del Ayuntamiento en el Consejo.

2. Corresponde a la Presidencia:

a) Representar y dirigir el Consejo.

b) Aprobar las nuevas incorporaciones de personas miembros del Consejo, así como las bajas.

c) Fijar el orden del día de todas las sesiones del Pleno del Consejo, así como convocarlas y presidirlas.

d) Crear los grupos de trabajo que considere oportunos para el buen funcionamiento del Consejo.

e) Trasladar las propuestas aprobadas en los órganos de gestión y de gobierno municipal.

f) El resto de atribuciones que le son propias en relación al funcionamiento de un órgano colegiado, como la utilización del voto de calidad en caso de empate.

3. La Presidencia y la Vicepresidencia son responsables de promover y articular la participación de las asociaciones del sector en el funcionamiento y el debate del Consejo.

4. En los casos de ausencia, vacante, enfermedad o por cualquier otra causa justificada, la persona que ocupa la Presidencia es sustituida por la persona que ocupa la Vicepresidencia, y en su defecto, por el/la Vocal de más edad.

Artículo 9. La Vicepresidencia

1. La Vicepresidencia corresponde a la Concejala o Concejale Delegado de Deportes, quien sustituirá a la Presidencia y asumirá sus atribuciones, en los casos de vacante, ausencia o enfermedad, ejerciendo además las funciones que le delegue la Presidencia.

2. Las atribuciones de la Vicepresidencia son las siguientes:

a) Llevar a cabo funciones de asistencia y colaboración con la Presidencia.

b) Las que le delegue la Presidencia.

c) Asistir a las personas miembros del Consejo en los asuntos relacionados.

3. El mandato de la Vicepresidencia tiene una duración de cuatro años, pero puede ser reelegida la misma persona para un nuevo mandato.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



10. artikulua. Lantaldeak

Kontseiluak askotariko funtzioak ditu eta hainbat esparrutan jardun dezake. Hortaz, ahalik eta eraginkortasunik handiena lortze aldera, lantaldeak eratu ahal izango ditu, gai zehatzak jorratzeko.

Lantaldeen bitartez, Kontseiluak gizarte zibilaren parte-hartzea antolatuko du, agindu zaizkion funtzioen arabera.

1. Lantaldeetan, Kontseiluko kideak egongo dira, edota beste pertsona batzuk edo lantzen diren gaietan adituak diren pertsonak, ekarpenak egin ditzaten.

2. Lan-talde edo -batzorde bakoitzak agindu zaion gaia aztertzeko behar duen denbora ezarriko du, eta, ondoren, jarraitzeko edo egin beharreko lana amaitzeko proposamena egingo dio presidenteari. Presidenteak lantaldeek jarraitzeko edo lantaldeak sortzeko proposamenak aztertuko ditu.

3. Lantaldeek euren ikerketen emaitzak eta txostenak Kontseiluaren Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkiote.

4. Lantaldeak sortzeko akordioan, haien osaera eta helburuak adieraziko dira, eta zer iraupen izango duten zehaztu ahal izango da.

5. Halaber, lantalde bakoitzak bere bilera-erregimena eta funtzionamendu-sistema ere zehaztuko ditu, proposatzen diren helburuen arabera.

6. Oso zeregin zehatza dutenez, lantaldeek bilera-erregimen malgua izango dute, gai bakoitzaren premiarekin bat etorriko dena.

7. Presidenteari dagokio lantaldeen deialdia egitea eta haien lana koordinatzea, baina, egokitzen hartzen badu, deialdia idazkariaren esku utzi dezake.

8. Lantaldeak sortzeko akordioan, haien osaera eta helburuak adieraziko dira, eta zer iraupen izango duten zehaztu ahal izango da.

11. artikulua. Idazkaria

Artículo 10. Los grupos de trabajo

Dada la diversidad de funciones y de campos de actuación del Consejo y para conseguir una mayor operatividad, se podrán constituir diferentes grupos de trabajo para temas o estudios específicos.

Los grupos de trabajo del Consejo articulan la participación de la sociedad civil en las funciones que tiene encomendadas el Consejo.

1. Los grupos de trabajo estarán integrados por personas miembros del Consejo y/o de otras personas o especialistas en los diferentes temas objeto de estudio o materia que se trate y que puedan realizar aportaciones.

2. Cada grupo o comisión de trabajo establecerá el periodo necesario para el tratamiento de la temática requerida y hará la propuesta a la Presidencia de su continuidad o de la finalización del trabajo a realizar. La Presidencia valorará las propuestas de continuidad o de creación de grupos de trabajo.

3. Los grupos de trabajo presentarán el resultado de sus estudios e informes al Pleno del Consejo.

4. El acuerdo de creación establecerá la composición y las finalidades del grupo de trabajo, y podrá determinar su plazo de vigencia.

5. Cada grupo de trabajo establecerá también su régimen de sesiones y el sistema de funcionamiento en función de los objetivos que se plantee.

6. El régimen de reuniones de los grupos de trabajo, dada su especialidad, será flexible y adecuado a la urgencia de cada tema.

7. La convocatoria y coordinación del trabajo de los grupos corresponderá a la Presidencia, que podrá delegar la convocatoria en el/la secretario/a cuando lo considere oportuno.

8. El acuerdo de creación establecerá la composición y las finalidades del grupo de trabajo, y podrá determinar su plazo de vigencia.

Artículo 11. Secretaría

1. Kontseiluko idazkaria Udal Kirol Erakundeko zerbitzu tekniko edo administratiboetako pertsona bat izango da, eta presidenteak aukeratuko du.

2. Idazkariak bileretan hartzen du parte, hitzarekin baina botorik gabe.

3. Idazkaria ez badago, postua bete barik badago, gaixorik badago edo egiaztatutako gainerako kasuetan, presidenteak ordezkio gisa izendatutako langileak arduratu beharko du idazkari-funtzioez.

4. Idazkariaren funtzioak hauek dira:

a) Presidenteak aginduta, bileren deialdia egitea.

b) Bileren akta eta hartutako erabaki espezifikoiei buruzko egiaztagiria, gerora akta onartu beharko bada ere. Hori jasota utzi beharko du egiaztagirietan.

c) Beharrezko komunikazio-ekintzak egitea.

d) Karguari datxezkion gainerako funtzioak betetzea.

3. KAPITULUA. BILERAK EGITEKO ETA AKORDIOAK HARTZEKO ERREGIMENA

12. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren deialdia eta eraketa

1. Kontseiluaren Osoko Bilkurak hiru ohiko bilera egingo ditu gutxienez urtean.

Halaber, ohiz kanpoko bilera egingo du:

a) Presidenteak eskatuta.

b) Kontseiluko kideen erdiek gutxienez eskatzen badute. Horretarako, idazki bat sinatu eta Kontseiluko presidenteari bidali beharko diote. Hartan, eztabaidatzeko proposatutako gaiak adieraziko dituzte. Orduan, presidenteak astebete izango du bilera deitzeko, proposatutako gaiak gaitzerrendan sartuz.

c) Arautegia aldatu behar bada.

d) Kontseilua desagiten bada.

2. Kontseiluaren Osoko Bilkura baliozki eratuko da lehen deialdian, kide-kopuru legalaren erdia gehi bat bertaraten bada.

Quorumik egongo ez balitz, bigarren deialdian eratuko litzateke, lehen deialdirako adierazitako ordua baino ordu-erdi geroago, zenbait kide bertaraten diren kontuan hartu gabe.

3. Ohiko bileren deialdia zazpi eguneko edo gehiagoko aurrerapenarekin egin behar da, eta,

1. La Secretaría del Consejo es ejercida por una persona perteneciente a los servicios administrativos o técnicos del Instituto Municipal de Deportes, designada por la Presidencia.

2. El secretario o secretaria asiste a las sesiones con voz pero sin voto.

3. En caso de ausencia, vacante o enfermedad o por cualquier otra causa justificada asumirá sus funciones la trabajadora o el trabajador designado como suplente por la Presidencia.

4. Las funciones de la Secretaría son las siguientes:

a) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden de la Presidencia.

b) Levantar acta de las sesiones y emitir certificación sobre los acuerdos específicos que se hayan adoptado, sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta haciendo constar expresamente esta circunstancia.

c) Practicar los actos de comunicación necesarios.

d) Cumplir las demás funciones inherentes al cargo.

CAPÍTULO 3. RÉGIMEN DE SESIONES Y DE ADOPCIÓN DE ACUERDOS

Artículo 12. Convocatoria y constitución del Pleno del Consejo

1. El Pleno del Consejo se reunirá de manera ordinaria al menos dos veces al año.

Asimismo, se reunirá en sesión extraordinaria:

a) A iniciativa de la Presidencia.

b) Cuando lo solicite al menos la mitad de las personas miembros, mediante escrito firmado y dirigido a la Presidencia del Consejo, en el cual figurarán los asuntos propuestos para su deliberación, disponiendo la Presidencia de una semana para convocar la sesión con la inclusión en el Orden del Día de los temas planteados.

c) En caso de modificación del Reglamento.

d) En caso de disolución del Consejo.

2. El Pleno del Consejo se constituye válidamente, en primera convocatoria, con la asistencia de la mitad más uno de su número legal de personas miembros.

Si no existiera quórum, se constituirá en segunda convocatoria, media hora después de la señalada para la primera, cualquiera que sea el número de personas miembros concurrentes a la misma.

3. La convocatoria de las sesiones ordinarias se hace con una antelación mínima de siete días y



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

INFORME

TXOSTENA

2334/2017

DEP11I02H

Código de validación/*Balidazio kodea*

1H4P466M5K6D5K6M0536



deialdiarekin batera, gai-zerrenda eman beharko da, bai eta, behar izanez gero, dagokion dokumentazioa ere. Ohiz kanpoko bileretan, deialdiaren gutxieneko aurrerapena berrogeita zortzi ordukoa da.

4. Ahal dela, deialdiaren eta gai-zerrendaren berri emateko, baliabide elektronikoak erabiliko dira. Mezu elektronikoak balioa du helbide elektronikoan eskuragarria dagoen unetik. Baliabide elektronikoak ezin badira erabili, edo kideren batek beste sistema bat aukeratzen badu, beste edozein baliabide erabili ahal izango da, administrazio-prozedurari buruz indarrean dagoen araudiari jarraituz.

13. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren bileren bilakaera

1. Gutxieneko quoruma dagoela egiaztatzean, presidenteak hasiera emango dio bilerari. Ondoren, gai-zerrendako gaiak zer ordenatan eztataidatuko diren adierazi eta bozketa zuzentzen du.

2. Kontseiluaren Osoko Bilkuran, gai-zerrendako gaiak baino ezin dira jorratu. Gai-zerrendako gaiak eztataidatu eta bozkatu ondoren, presidenteak galde-eskeen txanda zabalduko du.

3. Bilera hasi aurretik, edo, salbuespen gisa, bileran zehar, Kontseiluaren Osoko Bilkurako kideek zerbait zuzentzea edo gehitzea proposa dezakete, edo proposamen alternatiboak egin. Kasu horretan, bileran eztataidatu eta bozkatu behar dira.

4. Presidenteak eztataida antolatzeke eskumenak baditu ere, aldeko, kontrako eta abstentziorako txandak egon daitezke bozkatu aurreko deliberamenduetan.

Landu beharreko gaiarekin erlazionatuta dauden beste pertsona edo erakunde batzuk gonbida ditzake presidenteak. Hitza izango dute, baina ez botoa.

14. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuran akordioak hartzeko erregimena

1. Kontseiluaren izaera kontuan hartuta, akordioak aho batez hartzea sustatuko da. Dena den, Kontseiluaren Osoko Bilkurak hartutako akordioak

debe ir acompanyada del correspondiente orden del día y, en su caso, de la documentación pertinente. En el caso de las sesiones extraordinarias, la antelación mínima de la convocatoria es de cuarenta y ocho horas.

4. La convocatoria y el orden del día se realizará preferentemente por medios electrónicos. El envío electrónico tiene validez desde el momento que sea accesible a la dirección electrónica correspondiente. En caso de que no sea posible o que las personas miembros indiquen otro sistema, se podrá hacer de cualquier otra forma de acuerdo con la normativa vigente sobre procedimiento administrativo.

Artículo 13. Desarrollo de las sesiones del Pleno del Consejo

1. La Presidencia ordena el inicio de las sesiones una vez constatada la existencia del quórum mínimo necesario, e indica el orden de deliberación de los asuntos incluidos en el orden del día y su votación.

2. En el Pleno del Consejo sólo se pueden tratar los asuntos que figuran en el orden del día. Finalizado el debate y votación de los asuntos incluidos en el orden del día, la Presidencia abrirá el turno de ruegos y preguntas.

3. Antes del comienzo de la sesión, o excepcionalmente durante su transcurso, los y las miembros del Pleno del Consejo pueden proponer enmiendas, adiciones o propuestas alternativas, que deben ser deliberadas y votadas en la sesión.

4. Sin perjuicio de las facultades del presidente o presidenta para ordenar el debate, en las deliberaciones previas a la votación puede haber turnos a favor, en contra y abstenciones.

La Presidencia podrá invitar a participar en las reuniones otras personas o entidades relacionadas con el tema a tratar, con voz pero sin voto.

Artículo 14. Régimen de adopción de acuerdos en el Pleno del Consejo

1. Dada la naturaleza del Consejo, se promoverá el consenso en la adopción de acuerdos. Con todo, los acuerdos del Pleno del Consejo se adoptan

baliagarriak dira bertaratutako pertsonen gehiengo soilaren aldeko botoarekin.

2. Berdinketa gertatuz gero, presidentearen botoak erabakitzen du bozketaren emaitza.

3. Gehiengoarekin bat ez datozen kideek euren boto partikularra idatziz azaldu dezakete. Horretarako, hirurogeita hamabi orduko epea izango dute. Boto partikularrak akordioaren testuari erantsiko zaizkio. Hartutako erabakiaren kontrako botoa edo abstentzioa aktan jasoarazten duten kideak gerta daitekeen erantzukizunetik salbuetsita egongo dira.

15. artikulua. Bileren aktak eta akordioen egiaztagirak

1. Idazkariak, presidentearen oniritzia jaso ondoren, Kontseiluren Osoko Bilkuraren bilera bakoitzaren akta sinatu behar du. Akta bakoitza hurrengo bileran onartu behar da; izan ere, gai-zerrendako lehen gaia izango da.

2. Aktan, honako hauek adieraziko dira: bertaratu diren pertsonen kopurua, gai-zerrenda, lekua eta ordua, deliberamenduen puntu nagusiak, hartutako akordioen edukia, egindako bozketak eta eskatzen duten kideen iritzien azalpen laburra. Orobat, gertatzen diren gorabeherak ere jasoko dira, indarreko udal-araudiaren arabera bilera zintzoki jasota gera dadin.

3. Idazkariak bileran hartutako akordio espezifikoak idatziz jasotzeko dokumentuak eman ditzake, nahiz eta akta hurrengo bileran onartu behar den. Hori berariaz jasoko da dokumentu horietan.

16. artikulua. Kontseilua desagitea

Kontseilua urtean behin gutxienez biltzen ez bada, Udalbatzak desegin ahal izango du, behar bezala arrazoituta.

AZKEN XEDAPENA. INDARREAN JARTZEA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

válidamente por mayoría simple de las personas asistentes.

2. En caso de empate, el voto de la Presidencia dirime el resultado de la votación.

3. Las personas miembros que discrepen del sentido mayoritario pueden exponer su voto particular por escrito en el plazo de setenta y dos horas, el cual se incorporará al texto del acuerdo. Los y las vocales que hagan constar en acta su voto desfavorable o su abstención en relación con el acuerdo adoptado quedan exentos de la responsabilidad que se pueda derivar.

Artículo 15. Actas de las sesiones y acuerdos adoptados

1. El secretario o secretaria, con el visto bueno de la Presidencia, debe firmar el acta de cada sesión del Pleno del Consejo, que debe aprobarse en la siguiente sesión que celebren y como primer punto del orden del día.

2. En el acta se harán constar el número de personas asistentes, el orden del día de la reunión, el lugar y el tiempo en que se ha efectuado, los puntos principales de las deliberaciones, el contenido de los acuerdos adoptados, las votaciones realizadas, y si un/a miembro lo solicita, una explicación sucinta de su opinión. También se incluirán las incidencias que procedan para que refleje fielmente la sesión, según la normativa municipal vigente.

3. El secretario o secretaria puede emitir documentos que dejen constancia de los acuerdos específicos que se hayan adoptado sin perjuicio de la ulterior aprobación del acta, y hay que hacer constar expresamente esta circunstancia.

Artículo 16. Disolución del Consejo

En caso de que el Consejo no se reúna por lo menos una vez durante un año, el Pleno del Ayuntamiento puede suprimirlo motivadamente.

DISPOSICIÓN FINAL. ENTRADA EN VIGOR

Este Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Bizkaia.